

Kutxabank Plus 9 Pentsio Fondoa

Inbertsio-politika

I) PENTISIO-FONDOEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA.

Pentsio Plan eta Fondoen araudiarekin bat etorrira, inbertsio-politikaren printzipioak barne hartzen dituen adierazpen idatzi bat jasoko da.

Pentsio Fondoen inbertsioak, euren inbertsio-politika zeinahi delarik ere, merkatuaren gorabeheretara eta balio-inbertsioari lotutako bestelako arrisku batzuetara atxikita egongo dira. Horrenbestez, partaideak jakin behar du partaidetzaren balio likidagarriak gorantz zein beherantz egin dezakeela.

Seihilekoko txostenetan ikus daiteke zein den Fondoen zorroaren osaera zehatza.

II) PENTISIO-FONDOAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK.

Kudeatzailea: KUTXABANK PENSIONES, S.A.U.

Gordailuzaina: CECABANK, S.A.

III) PENTISIO-FONDOAREN INBERTSIO-POLITIKA.

a) Kudeaketa-helburua.

Fondoaren inbertsio-politikaren helburua izango da partaidetza bakoitzarentzat balio zehatz bat lortzea, aldeztatik finkatutako denbora-muga batean.

b) Inbertsioak aukeratzeko eta banatzeko irizpideak.

Fondoak, zuzenean zein zeharka, IKEn bitartez inbertituko du bere ondarea errenta finkoko titulu publiko zein pribatuetan; tartean izango dira kaudimen handiko jaulkitzaileek jaulkitako eta gehientsuenetan eurotan izendatutako moneta-merkatuko tresnak eta gordailuak ere, kotizatuak zein ez.

Fondoaren inbertsioak, hain zuzen, otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuaren Pentsio Plan eta Fondoen Araudiaren III. Tituluko IV. Kapituluaren aipatutako mugak izango ditu.

Errenta finkoko aktiboak estrategikoki kokatuko dira, Fondoaren konpromisoen izaerarekin eta iraupenarekin bat etorrira.

Errenta finkoko inbertsioen artean, kreditu-erakundeetako gordailuetan inbertitzea aurreikusi da, bai ageriko gordailuetan bai eperakoetan.

Fondoaren inbertsioetako errenta finkoko aktiboek, erostean, kreditu-kalitate handia izango dute (gutxieneko balorazioa: A-), edo Espainiarenaren berdina (azken hori apalagoa denean). Dena den, gehienez ere ondarearen % 25 inbertitu ahal izango da kreditu-kalitate ertaina duten aktiboetan (gehienez ere, honainokoak: BBB-), edo Espainiarenaren hiru maila beheragokoan (azken hori A- baino txikiagoa balitz); esan nahi baita, ertaina edo txikia den horretan. Bestalde, ondarearen % 10era arte inbertitu ahal izango da kreditu-kalitatearen aurreikuspenik gabeko errenta finkoko aktiboetan. Fondoaren aktiboak erosi ostean aktiboren bat ezarritako balorazioaren azpitik kalifikatuz gero, Erakunde Kudeatzaileak berehala aztertu beharko ditu balorazioan behera egiteko izan diren arrazoiak, eta beste finantza-hornitzaile batzuekin edo beste merkatu-adierazle batzuekin alderatu beharko ditu, eta hala badagokio, saltzea edo eustea komeni ote den erabakiko du, Fondoaren ondarea ahalik eta gehien babesteko. Era berean, kotizatu gabeko OTC gordailu eta deribatuak kontratatzean, muga horiek aintzat hartuko dira; eta aintzat hartuko dira, halaber, kontrapartiden kreditu-kalifikazioak. Hori dela eta, eragiketa horiek gauzatzean, muga horiek modu bateratuan aztertuko dira jaulkitzaileei eta kontrapartidei dagokienez.

Fondoak eragiketarako egin ahal izango ditu deribatuen merkatu antolatuetan negoziatutako edo negoziatu gabeko finantza-tresna deribatuekin, estaldura- eta inbertsio-helburuak betetzeko. Era berean, finantza-tresna deribatuetan inbertitu ahal izango du Fondoak, errentagarritasun-helburu jakin bat lortzeko kudeaketaren baitan. Azpikoei ez zaizkie aldeztatik mugak jartzen; beraz, interes-tasen, kredituen, dibisen, errenta aldakorraren, indizeen, egituren edo beste batzuen gainekoak izan daitezke.

c) Inbertsioekin lotutako arriskuak eta horien neurketa zein kontrola.

Merkatu-arriskua. Zeinahi motatako aktibotan inbertitzeagatik izaten den arrisku orokorra da. Aktiboen kotizazioa finantza-merkatuen joeraren arabera da batik bat, bai eta jaulkitzaileen bilakaera ekonomikoaren arabera ere. Azken horiengan, aldi berean, eragina izango du ekonomiaren egoera orokorrak eta herrialde bakoitzaren barneko egoera politiko zein ekonomikoak.

Inbertsioek, zehazki, honako hauek dakartzate:

- Interes-tasaren arriskua. Interes-tasen aldaketek edo gorabeherek eragina dute errenta finkoko aktiboen prezioan. Interes-tasen gorakadek eragin negatiboa izaten dute, oro har, aktibo horien prezioan; interes-tasen beherakadek, berriz, prezioa igotzea dakarte. Errenta finkoko tituluen prezioak interes-tasen gorabeherengatik izandako aldaketa handiagoa da, horien iraungitze-epea zenbat eta handiagoa izan.
- Kreditu-arriskua. Errenta finkoko aktiboen jaulkitzaileak printzipala (tronkoa) edo interesak ordaindu ezin izateagatik jasan beharreko arriskua da.
- Likidezia-arriskua. Kapitalizazio txikiko balioetan edo/eta kontratazio-bolumen mugatua duten merkatu txikietan inbertituz gero, inbertsioek likidezia gal dezakete, eta horrek eragin negatiboa izan dezake Pentsio Fondoak bere posizioak saltzeko, erosteko edo aldatzeko derrigorrez ezarri beharreko prezio-baldintzetan.
- Truke-tasaren arriskua. Euroa ez bestelako dibisa batzuetan izendatutako aktiboetan inbertituz gero, truke-tasaren gorabeheretatik eratorritako arriskua onartu behar izaten da.

Erakunde kudeatzaileak eta gordailuzainak, Fondoaren inbertsioei eragin diezaieketen arriskuei dagokienez, maiz zainduko dituzte Fondoaren inbertsioen balorazioa, merkatuen aldakortasuna, arrisku-diferentzial izenekoen bilakaera eta errenta finkoko aktiboen spread-ak.

Finantza-tresna deribatuetako inbertsio-arriskua. Finantza-tresna deribatuetan egindako inbertsioek eskura egindako inbertsioek ez dituzten bestelako arrisku batzuk dauzkate; izan ere, palanka-efektua eragiten dute eta, horren ondorioz, bereziki sufritzen dituzte azpikoaren prezio-aldaketak. Bestalde, deribatuen merkatu antolatuetan kontratatutak ez diren finantza-tresna deribatuen eragikerak arrisku gehigarri batzuk dakartza; esate baterako, beste alderdiak ez betetzea.

Kotizatu gabeko finantza-tresnekin eragiketak eginez gero, beste alderdiak ospe handiko finantza-erakundea izan beharko du derrigorrez, ELGAN helbideratuta dagoena, zentzuzko ikuskapena izango duena, eta era honetako eragiketak modu profesionalean egin ohi dituen. Atxikita duen kontrapartidaren arriskua erabat edo partzialki arintzeko beharrezkoak diren bermeak edo/eta albokoak jasoko ditu Fondoak.

Erakunde kudeatzaileak kontrolatuko du deribatuen bidez onartutako konpromisoa Fondoaren arrisku-profilaren eta inbertsio-printzipioen baitakoa dela.

d) Ezarritako printzipioak gainbegiratzeari eta horiei jarraipena egitea, betetzen ote diren ikusteko.

Balore higigarriekin eta finantza-tresnekin (izan deribatutak izan eskura egindakoak) egindako eragikera, hain zuzen, zorroa modu eraginkorrean kudeatzeko helburuarekin egingo da, errentagarritasuna-arriskua binomioari erreparatuta eta inbertsioen hautapen eta banaketa estrategikorako irizpideen baitan.

Erakunde kudeatzaileak inbertsio-politika eta haren arrisku-profila betetzen ote den gainbegiratzeko prozedura egokiak ditu.

Erakunde kudeatzaileak eta gordailuzainak errenta finkoko inbertsioen iraupenari buruzko aldizkako jarraipena egingo dute. Hala ere, parametro horren gaineko mugarik ez dute finkatuko, eta Fondo honetarako modu dinamikoan xedatuko da, talde kudeatzaileak merkatuei buruz duen ikuspegiaren arabera.

Errenta Aldakorraren barnean aurreikusitako aktiboekiko esposizioari, deribatutako tresnen bidez, ezarri beharreko bi muga daude, esposizio horren ikurraren arabera:

- Ikurra negatiboa denean, Errenta Aldakorreko aktiboarekiko esposizio garbia (hau da, eskura egindako inbertsioa kontuan hartuz) ezin da posizio laburrean eman. Edo bestela esanda, tresna deribatuekin gauzatutako eragiketak ezin du gainditu eskura egindako inbertsioa.
- Tresna deribatuekin gauzatutako eragiketak zeinu positiboa izaten badu, berriz, errenta aldakorreko aktiboarekiko esposizio osoak (hau da, eskura egindako inbertsioa batuz) ezin du gainditu errenta aldakorrerako ezarritako ondarearen gaineko muga.

e) Kutzabank SAren balioa handitzeko konpromisoa, Kutzabank Plus 9 Pentsio Planeko partaideentzat.

Kutzabank SAK emandako kanpoko finantza-bermea:

Kutzabank SAK konpromiso ezeztazina hartzen du, eta "Bermearen eraginkortasunaren baldintzak" atalean ezarritakoaren arabera, partaidea titularra den "Kutzabank Plus 9, Pentsio Planaren" kontu-euskarrian sartzeko 2026ko uztailaren 30ean bere planaren bermatutako ondare-balioaren (Bermatutako Likidaziozko Balioarekin - BLB- kalkulaturik, jarraian zehazten den moduan) eta 2026ko uztailaren 30ean planaren benetako likidaziozko balioarekin kalkulaturik ondare-balioaren arteko aldea, baldin eta alde hori positiboa bada.

Bermatutako Likidaziozko Balioa (BLB) bermearen mugaegunean kalkulaturik da, 2026ko uztailaren 30ean, modu honetan:

Bermatutako Likidaziozko Balioa (BLB) = Hasierako likidaziozko balioa (HLB)* (1+ % 1 + kupoia)

Non:

Hasierako likidaziozko balioa (HLB) = "Kutzabank Plus 9, Pentsio Planaren" partaidetzaren likidaziozko balioa 2017ko otsailaren 24an.

Kupoia = Max ((0 ; % 70 * min [(SX5E f / SX5E o - 1); % 20]))

SX5E f = EuroStoxx 50 indizearen ixte-balioa 2026/07/28an

SX5E o = EuroStoxx 50 indizearen ixte-balioa 2017/02/27an

Beraz, gutxi gorabehera adierazteko,

- Balio Likidagarriaren (HBL) errebalorizazio minimoa mugaegunean: % 1, eta hortaz: % 0,11ko UTB.
- Balio Likidagarriaren (HBL) errebalorizazio maximoa mugaegunean: % 17, eta hortaz: % 1,68ko UTB.

Merkaturatzearen hasierako aldiaren, ez dira baloratuko posizioak, finantza-tresna eratorrietan.

Bermea eraginkor egiteko baldintzak:

Konpentsaziozko berme honen eraginkortasuna likidaziozko balioa kalkulatzeko egungo lege-esparrua edo pentsio-planen zerga-erregimena ez aldatzearen menpe egongo da; hortaz, konpentsaziozko berme hori ez da eraginkorra izango, edo eraginkorra izango da soilik dagokion heinean, kasu hauetan, haren zenbatekoa kalkulaturik jarraian zehazten den moduan:

- Kutzabank Plus 9, Pentsio Planari lotutako ondarearen partaidetzen likidaziozko balioaren kalkuluar buruzko egungo arauak eragiten dien lege-aldaketaren bat gertatuz gero eta hura murriztuz gero, 2026ko uztailaren 30eko balio likidagarria kalkulaturik da aldaketa hori egin baino lehenago indarrean zeuden irizpideen arabera.
- Pentsio-planari aplikatu dakiekeen zerga-erregimenean lege-aldaketaren bat indarrean jarri gero, eta Kutzabank Plus 9, Pentsio Planari lotutako ondarearen likidaziozko balioa murrizten bada, konpentsazioa eraginkorra izango da soilik aldaketa horrek eragiten ez dion balioaren diferentzian.
- Konstituzio- edo lege-aldaketa baten ondorioz interes-tasen, epeen edo beste zerbaiten baldintzak aldatuz gero pentsio-planen ondarea osatzen duten jaulkipenetan, eta, era berean, aktiboen balioa murrizten bada, eta, ondorioz, partaidetzaren balioa, konpentsazioa eraginkorra izango da soilik konstituzio- edo lege-aldaketa horrek eragiten ez dion balioaren diferentzian.

f) Inbertsio-politikaren indarraldia.

Inbertsio Printzipioen honako adierazpen hau 2020ko martxoaren 20tik 2026ko uztailaren 30era birtarte izango da aplikagarria.